

Olaiaaren lorategia



OLAIAREN LORATEGIA

Udaberriko lehen eguna da eta Olaia lorategira itzultzen da jaiotzen ikustera, neguak utzitako hondakinak garbitzera. Baina Olaia ez dago bakarrik, lorategi honetan familiako emakumeek belaunaldiz belaunaldi landutako oroitzapenak loratzen dira. Absentzietan eta denboraren joan-etorrian barrena egindako bidaia dugu hau, agurraren bidez eta haurtzaroko maskotarekin, aitona-amonekin, gurasoekin eta gure sustraiekin berriz elkartzearen bidez egindakoa. Egunez egun, urtez urte eta lorez lore, udaberri berri baten itxaropena gordetzen dugu beti.



DOLUAZ & AUSENTZIAZ

Ikuskizun honi hasiera ematen dioten galderetako batzuk dira. Olaiarentzat, bere oroitzapenak lorategi honetan landuta daude; kotoiaren landarean bere maskota ikusten dugu, bere amona geraneoa bihurtzen da eta bere gurasoak mahatsondoa bilakatzen dira. Pertsonaia desberdinekin topatuz eta urtaroak igaroz, agurren falta eta garrantzia ulertzen du, bere bidea onartu arte.

Galeraren inguruan goxotasunez eta naturaltasunez hitz egin nahi duen proiektua da. Eta galeraz gain, bizitzaz eta bertan lantzen dugunaz. Helburua emoziorako topagune bat sortzea eta maitasunetik gogoratzea da.



PÁJAROS PINTADOS KONPANIARI BURUZ

Pájaros Pintados-eko txoriek istorio bila egiten dute hegan, eta partekatzeko kabira itzultzen dira. Ez dakigu norantz eramango gaituen haizeak, baina badakigu bihotza eta begirada zabalik egiten dugula hegan, sentikortasun eta emozio bila.

Pájaros Pintados sorkuntza eszeniko, lankidetza eta bitartekaritza artistikoko konpainia bat gara, Victoria Musettiren eskutik sortua 2022an. Profesional gazteen eta ibilbide luzeagoko beste batzuen arteko lankidetzarako gune bat sortu nahi dugu, askotariko esperientziez aberastuz. Gainera, publikoarekin lan egitea interesatzen zaigu, proiektu berritzaileen eta bitartekaritza-jardueren bidez. Pertsonak ezagutu eta ezagut gaitzaten nahi dugu. Egiten dugunari zentzua aurkitzen diogu besteak entzuten ditugunean.

TEATRO DEL CUERVO-I BURUZ

Teatro del Cuervo Asturiasko konpainia bat da, 2009an sortua, Sergio Gayol-en zuzendaritza artistikopean. Hasieratik, konpainiak antzerki hurbil eta kalitatezko baten alde egin du, dramaturgia garaikideak, antzerki fisikoa eta inplikazio emozional handia uztartzen dituzten eszenaratze-proposamenekin.

Bere ibilbidean zehar, publiko ororentzat zuzendutako ikuskizunak ekoitzi ditu, hainbat aitortza lortuz, besteak beste, Oh! Sari batzuk eta Max Sarietarako izendapenak.

Bere lan aipagarrien artean daude Carne de Gallina, Bojiganga, Todo está allí eta Gaviota 2.1, baita haur eta familia publikoarentzat sortutako lanak ere, hala nola Shere Khan eta Criados y Bufones.

Teatro del Cuervo-k parte hartu du FETEN, Muestra de Autores Contemporáneos de Alicante eta Ciudad Rodrigoko azoka bezalako azoketan, eta sarritan aritzen da koprodukzioetan beste konpainiekin elkarlanean. Bere jarduera-lerroan nabarmentzen dira berrikuntzaz betetako proposamenak eta zuzendaritza eszenikoan zaintza berezia.

Oraingoan, **Pájaros Pintados konpainiarekin koprodukzioaren bidez ari da elkarlanean.**



BITARTEKARITZA

Bitartekaritza-jarduerarako bi aukera eskaintzen ditugu. Alde batetik, beti deritzogu interesgarria emanaldiaren ondoren publikoarekin solasaldi bat izatea, inpresioak eta ikuspegi desberdinak jaso ahal izateko. Bestalde, sorkuntza-tailer bat egiteko aukera eskaintzen dugu, ikuskizunaren gaiari lotuta, emanaldiaren aurretik eman daitekeena. Kasu honetan memoriaren gaia jorratuko duen objektu-antzerki tailerra. Tailerrak goiz edo arratsalde bat, hala egun pare bat ere iraun dezake, eta proposatzen den denborara egokitu daiteke, dinamika desberdinak gehituz edo kenduz.

Ikasgelan lantzeko eska daitekeen **Dosier Pedagogikoa ere badugu.**



FITXA ARTÍSTIKOA

Victoria Álvarez Musettiren lan originala

ZUZENDARITZA ESZENIKOA

Sergio Gayol

ZUZENDARITZA ARTISTIKOA

Victoria Álvarez Musetti

ITZULPENA

Maitane Pérez

ZUZENDARITZA LAGUNTZAILEA

Victoria Álvarez Musetti

ANTZEZLEAK

Manuela Orbegozo eta Maia Ansa

TXOTXONGILO/LORE EGILEA

Martha Musetti

ESZENOGRAFIA

Jabi Vergara Bergera

ATREZZO

Victoria Álvarez Musetti

MUSIKA KONPOSIZIOA

Haizea Huegun

JANTZIAK

Azucena Rico

ARGIZTAPENA

Sergio Gayol

KARTELA ETA DISEINU GRAFIKOA

Eva Rami

ARGAZKIA ETA BIDEOA

Arizcuren y Osés Fotografía

KOMUNIKAZIOA

Sonsoles Echavarren

EKOIZPENA

Pájaros Pintados, Nafarroako Gobernuaren

dirulaguntzarekin eta Teatro del Cuervo-rekin koprodukzioan,

Asturiasko Printzerriko laguntzarekin.

FICHA TÉCNICA

GUTXIENeko NEURRIAK

5 zabal x 5 sakon x 3 altu

GENEROA

Objetuen antzerkia

GOMEDATUTAKO ADINA

Publiko guztientzat, 6 urtetik aurrera gomendatua.

IRAUPENA

50 minutu

HIZKUNTZA AUKERAK

Gaztelaniaz, euskaraz eta asturieraz.

BEHAR TEKNIKOAK

Kontsultaren bidez planoak eta txostenak eskainiko dira.

Egun berean hainbat emanaldi egin daitezke
(kontsultatu bien arteko tartea)

FORMATUA

Formatu txikiko ikuskizuna, espazio ez-konbentzionaletara eta ertainetara egokigarria.



KONTAKTUA

www.pajarospintadoscreacion.com

hola@pajarospintadoscreacion.com

Victoria Álvarez / T. 674 369 111


www.teatrodelcuervo.es

distribucion.teatrodelcuervo@gmail.com

Sergio Gayol / T. 629 832 117



KOPRODUKZIOAN



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Xixón | Cultura
y Educación



Principáu
d'Asturies



AINTZATESPENAK

Fira Tàrrega 2024ko programazioan hautatua.



Camino Escena Norte 2024ko Ibilbidean hautatua.



FETEN 2025eko programazioan hautatua.



Sendaberri 2025eko katalogoan hautatua.



PLATEA 2025eko katalogoan hautatua

